



ASTEARTEA, AZAROAREN 27a
BIDASOAKO ZERBITZU ZENTROA
ALKAIAGA INDUSTRIALDEA - LESAKA

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

Tfno : 948 62 51 22

bidaso.admon@cederna.es

<http://www.cederna.eu/eus/2012/11/kedada/>

EGITARAUA

9:00H – 10:30H: OSOKO BILKURA

9:00H – 9:20H Jardunaldiaren hasiera ekitaldia

Bidasoa bizirik eta Cederna Garalur Elkarteak erakunde ordezkariak eta teknikariak

1etik 10era ekintzailea definitzen duten gaitasun eta ezaugarri pertsonalak

Uxue Ibarrola and. – Asentire Consulting.

9:20H - 10:15H **Esperientzia ekintzaileak partekatzen Nafarroako Mendialdean:**

ALTSASUKO, S. KOOP, Enpleguari eusteko lankidetzaren ereduak.

Juan Cruz Bengoetxea jn., ALTSASUKO S. KOOP-eko bazkidea.

ACORN QUALITY LANGUAGE LEARNING – HIZKUNTZA AKADEMIA – LESAKA

Idoia Garmendia and.

BAE - BATUZ AURRERA EGIN KOOP TXIKIA

Verónica Martínez and., KOOP-eko bazkidea

10:15 – 10:30 **Moderna Fundazioa: Moderna Planaren Erronka enpresa-ekimenaren ildoan.**

Daniel Mazo jn. Moderna Fundazioko proiektuen burua.



10:30H – 12:00H AZALPENETARAKO, HAUSNARKETARAKO ETA EZTABAIDARAKO TAILERRAK

1. TAILERRA: “Ez da arrainik handiena txikiena jaten duena, azkarrena motelena jaten duena baizik” Zer-nolako arraina da zure enpresa? NIRE NEGOZIOAREN ESTRATEGIA. Ba al dut estrategiarik nire enpresan? Nola definitu?

Negozioen arloan, estrategia da nagusi. Behar bezalako estrategia duenak iraunen du bizirik eta lortuko du arrakasta. Enpresa baten bizitzan hainbat hanka-sartze egin daitezke, eta, berez, halaxe gertatzen da. Alabaina, ezinezkoa dugu estrategia nagusian hutsik egitea. Tailer honetan landuko dugu zure enpresarentzat estrategia bat definitzea kontuan hartu behar duzula.

Animatzailea: Eva Fontecha, enpresak sortzeko teknikaria, Nafarroako Ganbera

2. TAILERRA: KOMUNIKATU, INFORMATU, SALDU, EROSI... Nola iritsi gure bezeroengana? Komunikazioa eta marketina gure enpresan.

Adituek diotenez, enpresa baten garapenaren eta biziraupenaren zati handi bat enpresaren barruan eta kanpoan duen irudiak mugatzen du. Gure negozioa kudeatzeko eta balorazio positibo bat lortzeko, gomendagarria da komunikazio- eta marketin-plan bat abian jartzea. Marketin-helburuak, komunikazio- eta marketin-tresnarik egokienak eta komunikazio-taktikak nola definitu eta bezeroarengana nola heldu landuko ditugu: adibide praktikoak, estrategiak, taktikak, faseak, teknikak, urratsak.

Animatzailea: AITOR UBARETXENA, INFOTRES COMUNICACIÓN-eko zuzendaria.

3. TAILERRA: ZENBAKIAK, ZENBAKIAK, ZENBAKIAK!!!!!!!!!!!!!! Zergatik da ezinbestekoa kudeaketa ekonomiko-finantzario egoki bat?

Kudeaketa ekonomiko eta finantzario egoki bat egiteak duen garrantziaz hausnartu. Nola egin enpresaren datuen analisia, jarraipena eta ebaluazioa: bankuen kudeaketa, fakturazioa, kobrantzak eta ordainketak kudeatzea, inbertsioen eta finantziarioaren, diru-sarreraren eta gastuen analisia.

Animatzailea: Beatriz Chagoyen, Cederna Garalur Elkarteko teknikaria, ekintzaileen aholkularia.

4. TAILERRA: Krisiak lortuko al du gu guztiok geratzea? Eta orain zer? Nora goaz?

Hausnarketa-tailerra; langabeziaren egoerari, enplegua sor dezaketen merkatu-hobieiei, lanbide-eskakizunen kalifikazioari, enpresa ekimenari sostengua emateari, eta abarri buruzkoa.

Animatzailea: Javier Otazu Ojer, UNEDeko irakaslea.

TALDEKO SAIOA

12:15 H – 13:15H Tailer bakoitzean lortutako emaitzak eta ateratako ondorioak aurkeztea.

Animatzailea: Uxue Ibarrola, Asentire Consulting enpresakoa

Parte hartuko dute:

Eva Fontecha, enpresak sortzeko teknikaria, Nafarroako Ganbera

Aitor Ubarretxena, INFOTRES COMUNICACIÓN enpresako zuzendaria

Beatriz Chagoyen, Cederna Garalur Elkarteko teknikaria, ekintzaileen aholkularia.

Javier Otazu Ojer, Tuterako UNEDeko ekonomia-irakaslea.

13:30H – 15:00H APERITIBOA + KONTAKTUAK

MIKROFONOA ZABALIK: KONTATU ETA BANATU BESTEekin ZURE ENPRESA EKIMENAREN INGURUKO ESPERIENTZIA
 10 MINUTUZ!!!!!!!! ANIIMATU!!!!!!!!

Nolakoa izan zen zure enpresa sortzeko prozesua; hasierako unetik beretik, ideia izan zenuenetik, enpresa-ekimenari heltzeko erabakia, jarduera martxan paratzea, hazkundearen hasiera. Konta iezaguzu nolakoak izan ziren une erabakigarriak, nola hartu zenituen erabaki garrantzitsuak, zein aholku emango zenizkiguke...

15:00H KEDADA EKINTZAILEA jardunaldiaren amaiera-ekitaldia.